



## Apatta industriaguneak zabalik ditu jada ateak

**TOLOSALDEA** ▶ Atzo egin zuten agintariek inaugurazio ofiziala instalazio berrietara bisitak eginez

**EKITALDIA** ▶ Ibarretxe, Gonzalez Txabarri, Agirre, Bildarratz eta Romeo izan ziren, besteak beste ▶ 6



Ezker-eskuin: Mauri Lazkano, Anton Zubiaurre, Chelo Romeo, Joxe Joan Gonzalez Txabarri eta Juan Jose Ibarretxe. M. SOROA

**ZIZURKIL** ▶

### Jarduera ugari Kirol Asteburuan, etzitik

X. Gau Krosa, pilota partidak eta hitzaldiak besteak beste ▶ 5

**NORA OLANO** ▶  
EUSKARA TEKNIKARIA



I. GARCIA

«Herritarren inplikazioa eta iritzia jasotzea da helburua»

Bai Euskarari ekimena indartzeko arduraduna da ▶ 4

TOLOSA ▶

### Ekitaldi asko etzi Etorkinen Nazioarteko Eguna dela eta

'Aniztasunean elkarlanean' lelopean 13 lurraldek hartuko dute parte ▶ 3

**ZAS**  
soinu ikastaroa  
Informatika musikala (Cubase). Grabaketa eta masterizazio profesionala. P.A. eta monitorea. Eta aber.  
943 65 35 35  
[www.sointek.net](http://www.sointek.net)

orange Zure zerbitzura gure denda dagoeneko zabalik! ONJBY  
**Orange**  
Gernikako arbola 1 • TOLOSA • 943 65 04 00

GIZARTEA ▶

# Martxan da Gazteria sailaren SMS informazio zerbitzua

13-30urte bitartekoei zuzenduta dagoen egitasmo berri honek gazteekiko komunikazio sistema zuzena sortzea du helburu; jada 70ek eman dute izena

ESTI EZEIZA

Tolosako Gazteria sailak abian jarri du SMS zerbitzua. Gazteekiko komunikazio sistema zuzen bat sortzeko helburuarekin, beti ere, gazteei interesatzen zaizkien gaiak jorratuz. Gipuzkoa mailan lehendabizikoa da Tolosakoa. Izena eman nahi duenak, orri bat bete beharko du, hau, Tolosako Udaleko webgunean aurkitu daiteke: [www.tolosakoudala.net/sms](http://www.tolosakoudala.net/sms). Hemen ez ezik, Aranburu Jaurerian, Errota haur liburutegian, Topagunean, nahiz Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetan ere eskuratu ahal izango dira. Gainera, gazteek aukeratu ahal izango dute zein informazio mota jaso nahi duten.

Herenegun aurkeztu zuten ofizialki egitasmoa, hala ere,



Zenbait gazteko, Topagunean, izen-emateko orriekin. HITZA

uda hasieran jarri zuten martxan, eta ahoz-ahoz zabalduz joan da. Orain artean 70 pertsona inguruk eman dute alta

zerbitzuan. Gazteria sailekoen esanetan, «orain arte frogamoduan aritu gara, baina zerbitzuak eskaintzen dituen aban-

tailak ikusita, epe motzera, jende gehiago ere animatuko da».

13-30 urte bitarteko tolosarrei zuzenduta dago egitasmoa. Adin talde hau aukeratu dute «beharrak ezberdinak direlako». Bidaltzen den informazioa Tolosa mailakoa nahiz kanpokoak da, eta sei ataletan sailkatzen da: lana, oposaketak, ikastaroak, bekak, zerbitzuak eta lehiaketak. Baina informazioa emateaz gain, hitzorduak egiteko ere aproposa da komunikabide hori.

Orain arteko zerbitzuaren emaitzak jaso dituzte jada egitasmoa aurrera eramanez. Hala, aurten Gazteriatik antolatutako ikastaro guztietan plaza guztiak bete dira, jendea kanpoan geratu delarik. Bestalde, Tolosa Kup-eko partidaren emaitzak sms bidez helarazi dizkiete gazteei.

Astean bi edo hiru mezu bidaliko dizkiete interesatuei, Nerea Cereceda, Gazteria saileko arduradunaren esanetan, «ez ditugu gazteak nekatu nahi, horregatik neurtu egingo dugu sms kopurua».

**Zerbitzuaren %90a euskaraz**

Gazteria saileko informazio bulegora Foru Aldundiko informazioaren lurralde zentritik iristen den informazioa ere bidaltzen zaie gazteei. Honez gain, herrian bertan dauden ekintza, ikastaro eta abarren berri ere zabalduko dute. Bidaltzen den informazioa bi multzotan sailkatzen da, 13-17 urte bitartekoei zuzendua eta 18-30ekoena, adin tarte hauek gazteen intereseko gaiak desberdinak baitira.

Orain arteko datuak kontuan hartuta, erabiltzaileen %90ak zerbitzua euskaraz jasotzen du, gainontzekoek gaztelaniaz. Bestalde, izena eman dutenen gutxiengoa dira gaztetxoak, gainontzekoak helduagoak dira. Hori dela eta, gustura daude arduradunak, «ez baitira betikoak». Zebitzu berri hau gazteei zuzenduta badago ere, arrakasta izanez gero, helburtzako ere izan liteke.

GIZARTEA ▶

## Etzi egingo dute Eskerrak Zuri Aipamen Berezien 4. edizioa

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, herritar eta elkarten lana goraiptuko da

E. EZEIZA

Galtzaundi Euskara Taldeak, urtero bezala, Eskerrak Zuri Aipamen Berezien 4. edizioa antolatuta du. Sariaketa honek Tolosaldean hainbat elkarten egi-

ten duten lana publikoki eskertzea du helburu. Lau atal izango dira: kirola, kultura, gizatasuna eta ohorezko aipamen berezia. Ekitaldia bihar izango da, hilak 15, iluntzeko zortzietan, udaletxeko batzar aretoan.

Kultura arloan, kirolean eta gizatasunaren esparruan urtean zehar nabarmendu direnei, zein bizi osoko ibilbidean euskararen eta euskal kulturaren arloari ekarpen berezia egin dion bailarako pertsona edo erakundeari aipamena egin eta ekitaldi berezia antolatzen zaio.

Antolatzaileen esanetan, «aurtengo Eskerrak Zuri Aipamen Berezia indarberrituta dator», eta omenduak izango direnak prest daude iazkoen testigua jasotzeko. Alor bakoitzeko epaimahaiak erabaki du 2006. urtean egindako lana nori eskertu edota pertsona edo talde baten ibilbide osoa nori omendu.

**Urtez urte**

Lehenengo sariketako 2003ko abenduaren 12an egin zen, eta irabazleak ondorengoak izan ziren: Alpino Uzturre Mendi elkarte, Bonberenea eta Josu Perales idazle eta artikulugileak.

Bigarren ospakizunean hainbat pertsona eta taldek Galtzaundiren aipamen berezia jaso zuten. Ekitaldi hartan, Jose Ignazio Elolak zesta punta



Joan den urteko Eskerrak Zuri Aipamen Berezien irabazleak. GALTZAUNDI

jokalaria jaso zuen kirolaren alde berebiziko borroka egiteagatik. Bigarren saria Alur dantza taldekoentzat izan zen, eta hirugarrena, Tere Mozo Artola irakaslearentzat. Azken aipamena Jesus Altuna historiaurreko adituarentzat izan zen.

Joan den urtean, kirol aipamena Villabonako Behar Zana elkartearentzat izan zen. Kultur arloari dagokionean, Antonio

Zabalaren ekarpenak eskertu zituzten, hau umetatik hasi zen herriko istorioak, bertsoak eta gertakizunak jasotzen. Gizatasun arloari dagokionean, Abegik egindako lana goraiptatu zuten. Elkarte honek bazterketa soziala jasotzen dutenekin lan egiten dute. Iazko azken saria, berriz, Marimi Ugalde Irurako alkatearentzat izan zen, herriarekiko duen inplikazioagatik.

**TOLOSALDEKO HITZAK lan poltsa osatzeko banatzaile/buzoneatzaileak behar ditu Tolosaldean.**

**LAN-BALDINTZAK :**

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 9:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

**Interesatuak 943 30 35 33 telefonora deitu lehenbait lehen.**

ZINEMA ▶

**'La leyenda del tiempo' filma gaur ikusgai**

Zine forumaren saio berri bat izango da gaur ikusgai Leidor aretoan. Isaki Lacuestaren *La leyenda del tiempo* pelikula da, hain zuzen ere, gaur emango dutena, 19:15ean lehendabizi, eta 21:45ean ondoren. Pelikularen aurkezpena zuzendariak berak egingo du filmaren aurretik.

GIZARTEA ▶

**Casino elkartearen banatutako loterian akatsa**

Casino elkartearen saldutako Gabonetako loteria txartelaren akats bat egon dela jakinarazi dute. Izan ere, 50.972 zenbakidun txartelak banatu dituzte, benetako zenbakia 50.792 denean. Beraz, azken zenbaki hori hartu beharko dute kontuan txartelen jabeek sariak banatzerakoan.

KULTURA ▶

**Euskal musikaz hitzaldia Bonberenean**

Bonberenearen 7. urteurrenaren ospakizunen baitan, gaur, 19:00etan *Euskal musikaren egoera aztertuz* hitzaldia izango da.

KULTURA ▶

**Pako Aristiren hitzaldia, gaur, Kultur Etxean**

Galtzaundi Euskara taldeak antolatuta, Pako Aristik literaturari buruzko hitzaldia eskainiko du, gaur, 20:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian.

GIZARTEA ▶

**Etorkinen Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldi ugari etzi**

Ereite eta Kalkuta Ondoan elkarrekin eta Udalak antolatutako jardunaldiak 'Aniztasunean elkarlanean' lelopean

IÑIGO TERRADILLOS

Datorren astelehena, hilaren 18a, Etorkinen Nazioarteko Eguna ospatuko da, eta horren harira hainbat ekitaldi antolatutako Ereite elkarte kulturari-tzak, Kalcuta Ondoan elkartek eta Tolosako Udaleko Gaztaria eta Immigrazioa sailak. *Aniztasunean elkarlanean* lelopean, ekitaldiok etzi arratsaldean eta gauean izango dira Zerkausion eta Kultur Etxean.

Hainbat ekitaldi burutuko dituzte, eta horien artean, bereziki Indiara laguntza bideratzen duen Kalkuta Ondoan elkartek antolatutako *Ametsen basoa*; «sentsibilizazio jarduerak bat da hau, kultura ezberdinen arteko hurbiltasuna bultzatzea helburu duena», azaldu zuen atzoko aurkezpenean Maite Larrak, elkartearen boluntarioak. Tolosako neska-mutilek handitzen joango den basoa osatuko dute, zuhaitzetako hostoetan umeek eginiko marrazkiekin edo idatziekin. Horien bidez, Indiako umeentzat dituzten desioak azaldu beharko dituzte.

Aurrez tailerra egingo dute egurrezko zuhaitzak eta hostoak egiteko, eta hori bezala, Ikertze elkartearen tailerra, arpegi margoketa, marrazkigintza eta musika tailerra jarriko dute eta bidezko merkataritzako produktuak eskuratzeak aukera ere izango da, besteak beste.

Ekitaldi hauek guztiak Zerkausion burutuko dituzte, eta hauekin batera, tearen dastaketa, henna eta idazkera taile-



Maite Larraza, Kalcuta Ondoan elkartearen boluntarioa eta Rita Calderon Ereite elkartearen kidea, atzoko aurkezpenean. I. TERRADILLOS

rra egingo dute; lapikoak nola elaboratzen diren erakutsiko dute, eta ondoren jokoan parte ahalgo da horiek hautsiz lurralde askotan egin ohi den moduan; herrialde desberdinetako tradiziozko jokoak eta artisautza erakutsiko dituzte, 2007ko egutegi kulturari-tzak eta *Ipuinartean* proiektuko liburuak jarriko dituzte salgai eta larunbatero Topagunean «arrakasta handia» duen dantza ikastaroan parte hartzen

duen erakustaldia izango dira.

Rita Calderon, Ereite elkartearen kidearen arabera, «horrelako egunak oso garrantzitsuak izaten dira etorkinentzat, bai jendea ezagutzeko, bai eta herriaren integrazteko ere; gainera, euren lurraldeko ohiko gauzak erakusteara gogo handiz egiten dute, ilusioz, eta aurtan 13 lurraldetako ikusteko aukera izango da». Integrazioa eta elkarbizitzaren alde egiten

EGITARRAUA ▶

Zerkausion arratsaldean, eta Kultur Etxean gauean askotariko ekitaldiak antolatuko dituzte:

**ABENDUAK 16, ETZI 17:00etatik 20:00etara.**

Zerkausion 13 lurralde desberdinek parte hartuko duten ekitaldiez gozatzeko aukera izango da:

- ▶ Arpegiak margotzeko tailerra: *Motibo hinduarrak*.
  - ▶ Mandalak koloreztatu.
  - ▶ Hausnarketarako tailerra: *Berdintzen gaituena* ikusentzunezkoa.
  - ▶ Plastikak tailerra: *Ametsen basoa*.
  - ▶ Bidezko merkataritzako produktuen dastaketa eta salmenta.
  - ▶ May Gorostiagaren aktuazioa.
  - ▶ Henna tailerra: Magreb.
  - ▶ Te dastaketa: Magreb.
  - ▶ Idatzizko tailerra: Arabiera, txinera, errusiarra eta hindua.
  - ▶ Trentzatxo tailerra: Ginea.
  - ▶ Piñata tailerra: Latinoamerika.
  - ▶ Munduko jolasak.
  - ▶ Dantza tailerra: salsa, merengea eta bachata.
  - ▶ Munduko artisautza ikusgai eta salgai.
  - ▶ Munduko janarien dastaketa.
  - ▶ *Ipuinartean* liburu eta egutegi multikulturalaren salmenta.
- 21:00etatik 24:00etara.**  
Munduko musiken dantza-festa Kultur Etxean.

du lan Ereitek eta horrelako ekimenak bultzatzea oso egokia da euren ustez; «Azken aldiaren etorkinen aldetik iristen diren berri asko ez dira oso onak izaten, eta horregatik, arazoak ez direlako orokortu behar, festa giroko zerbait antolatzea izan da gure asmoa», dio Calderonek. Hala, herritar guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera, eta lagundu dutenak eskertzen dituzte, Topaguneko kideak horien artean.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

## ANOETA ▶

Gabonetako  
ludoteka  
antolatu du  
Udalak

## ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak Gabonetako ludoteka antolatu du HH1etik hasi eta LH6 maila arte. Hilaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era egingo dute, 11:00etatik 13:00etara, Ikastolan. 10 euro ordaindu behar dira. Izen-ematea, udaletxean, hilaren 20a baino lehen. Ludotekarako begiraleak behar ditu Udalak. Honetarako izen-ematea ere hilaren 20an amaitzen da.

Bestalde, xakearen txokoa antolatu du Udalak Gabonetan. Ikastaroa egiteko aukera egongo da hilaren 27an eta 29an eta urtarrilaren 3an eta 5ean, 10:00etatik 11:00etara. Ikastolan. LH1 eta LH4 bitarteko ikasleei dago zuzenduta eta doakoa da. Izen-ematea hilaren 20ra arte udaletxean edo ikastolan (Patxi).

## TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112))  
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun ebexa:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

## Besteriak.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## NORA OLANO ▶ TOLOSALDEKO TEPE-KO KUDEATZAILEA ETA GALTZAUNDIKO EUSKARA TEKNIKARIA

IMANOL GARCIA

Eskualdean Bai Euskarari akordioa indartzeko asmoz ekimena martxan jarri dute. Kontseiluaren ordezkaria Tolosaldean Galtzaundi euskara elkartea da eta bertako euskara teknikaria eta Tolosaldeko TEPEko kudeatzailea den Nora Olanok (1979, Tolosa) ekimenaren berri eman digu.

**Lehenik eta behin, zer da Bai Euskarari akordioa?**

Enpresek eta dendeak, ahal duten neurrian, euskararen alde egitea du helburua. Eguneroko lanean euskararen erabilera alde egitea: errotulazioa, erantzungailua, nominak... euskaraz jartzea. Horren berri ematea eta bide horretan pausok ematen laguntzea da gure funtzioa. Eragile horiek egiten dituzten pauso horiei errekonozimendua emateko Bai Euskarari ziurtagiria banatzen da.

**Zenbatek dute ziurtagiri hori eskualdean?**

Egun 70 enpresek eta dendeak dute ziurtagiria.

**Hau guztia indartzeko egitasmoa jarri duzue martxan.**

Azken urtean ikusi dugu Bai Euskarari Ziurtagiria ahultzen joan dela. Horregatik ekimen bat jarri dugu martxan eta dagoeneko egin dira zenbait gauza. Galtzaundik *Normalizaziorako Boletina* argitaratu du eta *Udan ere Bai Euskarari* mezua zabaldu du. Irailetik aurrera, zozketa jarri genuen martxan. Ziurtagiria duten enpresek eta dende beraien bezeroei txartelak banatu dizkiete eta zozketa ostiralean [bihar] egingo da, Bai Euskarari Egunean.

**Zer antolatu duzue egun horretarako?**

Haurrentzako jaialdia egingo dugu, 17:30ean hasita, Atsedena taldearen eskutik, Tolosako Triangulo plazan. Ondoren, zozketa egingo dugu. Bi sari banatuko dira: 60 euroko bi txete Colors eta Kimetz dendetan gastatzeko. Prentsa bidez ere ezagutaraziko dira bi zenbaki sarituak. Gauean bertso afaria egingo dugu Ibarrako Gaztetxean, Xabier Silveira, Jokin Uranga eta Amets Arzallusekin. 21:00etan hasiko da ekitaldia. Ekitaldi guztiak antolatzeko nabarmendu beharra dago Euskadiko Kutzak, Tolosako Udalak, Colors eta Kimetz dendak eta Ibarrako Gaztetxeak emandako laguntza. Sustapenaren ekimen honi oihartzuna emateko antolatu dugu.

**Zergatik joan da ahultzen Bai Euskarari ekimena?**

Arazoietako bat ekimena sustatzeko lan guztia Galtzaundik bere gain hartu duela izan da. Euskalgintza orokorrean gutxi inplikatu da. Bestalde, eskualdea nahiko handia da eta zen-

## «Herritarrak inplikatzeara eta beraien iritzia jasotzea da helburua»

Bai Euskarari ekimena indartzeko egitasmoa abian da Tolosaldean; Nora Olano da horren arduraduna



I. GARCIA

## BAI EUSKARARI EGUNA

«Bai Euskarari ekimenaren sustapenari oihartzuna emateko ekitaldiak antolatu ditugu»

bait zonalde pixka bat alden dute gelditzen dira. Horregatik, beste bide berri bat hasi gara jorrazten, beste planteamendu batekin. Galtzaundiren koordinatzaileak Bai Euskarari ekimena hiru eremutan banatzea erabaki da: Villabona-Aiztondo, Alegialdea eta Tolosa ingurua. Eredu bakoitzean talde bat martxan izatea da asmoa, eragite lanean aritzeko. Herritarrak inplikatzeara da helburua eta beraien iritzia jasotzea.

**Taldeak sortu dira?**

Villabona-Aiztondon 6-7 lagunekoa osatu da. Alegialdean lehenengo bilera bat egin da eta lau lagun animatu dira.

## ERAGITE TALDEAK

«Sustapena egiteko Villabona-Aiztondon 6-7 lagunekoa dago martxan eta Alegialdean lau lagun animatu dira»

Bigarren bilera bat aurki egingo dugu, urtarrilaren 15ean, Alegialdean, 19:30ean. Tolosako inguruan indar gehiago du Bai Euskarari ekimenak eta bertan banatzen dira ziurtagiri gehienak. Beraz, sustapena egiteko behar gehiago dago beste bi zonaldeetan. Gonbidapena luzatzen diegu herritarrei parte hartzeko.

**Bai Euskarari ziurtagiriaren banaketa urtero egiten duzue.**

Bai, martxoan egiten da. Aurretik enpresek eta dende hartutako konpromisoak bete dituztela ziurtatzen dugu. Aurreko hilabeteak ere baliatzen ditugu

## ZIURTAGIRIA

«Euskararen alde egiten duten apustua errekonozitzeko banatzen zaie enpresei eta dendei»

bitak egiteko enpresetara eta dendetara. Bai Euskarari ziurtagiria jaso nahi duten galdeztera eta prozesua martxan jartzeko. Eman beharreko pausok egiten laguntzen dugu. Esaterako, nominak euskaraz jarri nahi badituzte, zerbitzu hori ematen duten aholkularitzen berri ematen diegu. Urtean behin, ebaluazioa egiten dugu, konpromisoak bete diren jakin eta horrela gertatu ez bada, zergatik izan den jasotzeko. Enpresa eta denda horiek euskararen alde egiten duten apustua errekonozitzeko egiten da ziurtagiriaren banaketa.

ZIZURKIL ▶ KIROLA



Kandido Aizpurua, Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkola mendizaleak G-IIra joan ziren udan. LEIRE MONTES

# Kirol Asteburuari hasiera emateko, G-II mendia proiektzioan

Herriko X. Gau Krosa izango da etzi, eta igande eguerdian profesionalen arteko pilota partidak Intxaur pilotalekuan

NEREA URBIZU

Zizurkilgo Atxutegi kultur etxean atzo eguerdian Kirol Asteburuaren berri eman zuten. Hiru egunetan dago banatuta, aurreko hiru urteetan bezala.

Ainhoa Larrea teknikariak egutegia eta orduak zehaztu zituen: bihar Zizurkilgo mendigoizaleen G-II igoera diaporama izango da. *Zizurkildarrak G-II-an* izena du Iriarte Etxean ikusiko dutena, 19:30ean.

Ondoren, Zizurkilgo aurtengo kirolari onenei omenalditoxa egingo zaie. Aurtun hauek izan dira bereziki: Aitziber Ibarbia, Iñaki Urkola eta Kandido Aizpurua mendigoizaleak, Joseba Otaegi aizkolaria, Modesta Iraola ehiztaria, Aitor Kastro futbolaria, eta Ekaitz Kortajarena, Teddy Martinez, Jon Tejedor, Lourdes Gorostegi, Igor Sasiain, Jon Ander Iriarte, Iker Hernandez eta Julen Intxausti pultsulariak. Ondoren afaria egingo dute Urkamendi jatean.


*Hamabi orduz kirolean* izena jarri diote etzikoari. 12:00etan Zizurkil Goian herri kirolak izango dira. Goma gaineko 4x4 sokatirak emango dio hasiera egunari. 340 kiloko kategoria izango da eta kasu honetan, Amaiur, Girizia eta Izaskun taldeak bisitatuko dute herria. Aizkolaria ere ariko dira:

«Iganeko Tolosako aizkora apustua dela eta aldaketa batzuk izan dira: Nazabal-Otaegi eta Juanjo Lopez-Peñagarikano dira azkenean etorriko direnak», Ainhoa Larreak argitu duenez.

15:30etik 17:30era haur eta gurasoentzako orientazio ibilbidea antolatuko dute. «Herrian zehar ibiliko dira, Zizurkil Goia eta Zizurkil Behea lotuz, eta helburua iparrorratza erabiltzen ikastea izango da». Ordu eta erdiko ibilbidea izango da, gutxi gorabehera. Adinen araberako hiru taldetan banatuko dituzte parte-hartzaile guztiak. Ondoren, merienda eta opari banaketa egingo dituzte.

Herriko Gau Krosa

Gauean, 22:30ean, Zizurkilgo Kirol batzordeak eta Udalak antolatuko duten herriko X. Gau Krosa izango da. Sariak ere izango dira: heldu eta gazte mailan lehenengo hiru postuentzat, *Dinosaurio* saria ere emango dute, hau da, korrikalari helduenari emango zaion saria. Korrikalari guztientzat kamisetak banatuko dituzte. Horrez gain, mendiko materiala —Albizu Kirolak emandakoa— eta lau afari zozketatuko dituzte. Afari hauek Atxulondok, Egarrik, Toki Eder-ek, Beibategik, Zentroak, Pantxika-



Aurtengo kartela. HITZA

nek, Plaza Berrik eta Abeletxek eman dituzte.

Azken sari bat lasterketaren marka berria jartzen duenarentzat izango da. Orain arteko onena 22 minutu eta 34 segundotan dago: baliteke aurtun zazpi kilometro eta erdiak inork azkarrago egitea.

Izena egunean bertan ematea posible da, 21:30ak aldera. Bestela, [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) helbidean egin daiteke.

Iganeko eguerdian pilota

Iganeko Tolosako aizkora apustua dela eta, Intxaur frontoian 17:00etarako zeuden pilota partidak aurreratu egin dituzte 12:30era. Lehenengoan Nagore eta Antxia izango dira aurrez aurre. Ondoren Alustiza-Errandonea, Ariznabarreta-Arretxeren aurka.

BIDEGOIAN ▶

## Olio eta hondakin arriskutsuen bilketa bihar

Bihar etxeetako olio eta hondakin arriskutsuen bilketa egingo dute Bidegoianen. Azken hauen artean, pinturak, itsasgarriak, disolbatzaileak, fluoreszenteak eta lanparak, autoetako bateriak eta olio erabilia, pilak, inprimagailuetako tinta-kartutxoak eta tonerrak, sakelekoak, termometroak, aparatu elektriko txikiak... Bilketa honetarako furgoneta bat herrian zehar ibiliko da 10:00etatik 11:00ak arte. Urola Erdiko Mankomunitateak herritarak animatu nahi ditu ekimen honetan parte hartzera.

GIZARTEA ▶

## Hondakinaren informazio liburuxkak eskura

*Nola murriztu ditzaket nire hondakinak? Eta zer egin sortutakoekin?* Tolosaldeko Mankomunitateak hiri hondakinei buruzko gida informatiboa kaleratu du. Herri ezberdinetan banatuko dituzte: gaur Abaltzisketan 17:30ean udaletxean. Amezketan, berriz, bihar ordu berean baina Herriko plazan. Alegian bihar ere, 19:00etatik 20:00etara, plazan. Astelehenean Altzon, 16:30etik 17:30era herriko plazan, eta Albizturren egun berean, 17:45etik 18:45era, herriko plazan ere.

ALEGIA ▶

## Intxurreko pilotariak Gipuzkoakoan

Alegian Gipuzkoako Infantilen Pilota Txapelketa larunbatero jokatzen aritu dira. Lehenengo fasea bukatu egin da. Alegiko Intxurre 1 bere multzoan lehena sailkatu da eta ondorioz, Gipuzkoako Txapelketa jokatuko du. Intxurre 2, aldiz, laugarren sailkatu da eta Eskualdeko Txapelketa jokatuko du. Alegian jokatuko dira berriro ere 2. faseko partidak, hauek bi multzotan banatuta, hilaren 16an eta 23an eta 2007ko urtarrilaren 13, 20 eta 27an. Bertan izango dira Bergara, Hernani, Zarautz, Arrasate, Astigarraga, Ataun, Anoeta eta Bidaniko pilotariak. Etzi, beraz, bigarren fasearekin hasiko dira, 16:30ean, Alegiko pilotalekuan.

ALEGIA ▶

## Gabonetako egitarauari hasiera, igandean

Gabonetako egitarauari hasiera emateko aitzakiatzat hartuz, Udalak antolatuko duen gaztain jatea izango da igandean Alegiko udaletxeko plazan. Arratsalde osoan izango dira bertan, 16:30etik 21:00etara bitarte. Asteazkenean, berriz, Loatzo musika eskolako Eguberrietako kontzertua izango da Kultur Etxean, 18:00etatik aurrera. Santo Tomas egunean, hilaren 21ean, hain zuzen, ipuin kontaketa izango da Udal Liburutegian, 18:15ak aldera.

ALEGIA ▶

## Intxurrekoen partida guztiak, etzi izango dira

Intxurre futbol eta areto futboleko hurrengo norgehiagokak etzi jokatuko dituzte. Alegian jokatuko duen bakarra jubenilen taldea izango da, 15:30etik aurrera. Segurakoen kontra. Kadeteek Aizgorrikoen aurka egin beharko dute 16:00etan. Lurraldekako mailako mutilek 15:30ean Lazkaon jokatuko dute eta neskek berriz, Altzara dira joatekoak, 15:30ean duten partida jokatuko. Aurreko asteburuko deigarriena, kadeteen 5 golak.

**LIBURUDENDA PAPERDENDA**

**M AIMUR**

Prentsa-Liburuak  
Faxa-Fotokopiak  
Zerbitzu berria: Mota guztietako dokumentuen artisau enkuadernaketa

Tel./Faxa: 948 51 01 46 • Elbarren, 17 • LEITZA



EKONOMIA ▶

# Ofizialki zabaldu ditu ateak Apattaerreka industriaguneak

Juan Jose Ibarretxe, Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Ana Agirre, Chelo Romeo, Jokin Bildarratz, Mauri Lazkano eta Anton Zubiaurre izan dira inaugurazioan

MADDI SOROA

Tolosa, Ibarra eta Leaburu artean kokaturik dagoen Apattaerreka industriagunea atzo inauguratu zuten. Bertan izan ziren Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Ahal-dun Nagusia, Ana Agirre Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Chelo Romeo Ibarra alkatea.

Inaugurazio ekitaldia eguerdirako hasiatekin aurreikusia bazegoen ere apur bat beranduago hasi ziren agintariak enpresak bisitatzen. Apattan kokaturik dauden Gorostidi, Obeki eta Voith enpresak izan ziren lehendakariak gain agintedunek bisitatu zituztenak. Gorostidi izan zen horietan lehena. Hala, enpresako instalazioak ikusi ondoren, tailerretara jaitsi ziren denak eta gertutik ezagutu ahal izan zuten papergintzarako makinaren fabrikazioa.

Obeki izan zen bisitaturiko bigarren enpresa, bertan, Ifigo Otegi zuzendari komertzialak bulegoak erakutsi eta enpresaren inguruko datuak eman zizkien agintariari. Tailerreko bisitatu, Obekiren itxura berrituaz gozatzeko aukera izan zuten denek, *Obeki Group* izenpeko ekoizpen taldeak gertutik ikus-tea, alegia.

Bisitaturiko hirugarren eta azken enpresa Voith izan zen. Bertan, aurreko bi enpresetan egindakoa errepikatu zen, hau da, bulegoak bisitatu, enpresaren inguruko datuak jaso eta tailerreko lanak gertutik ezagutu, baita langileekin hitz batzuk elkartrukatuta ere.



Ibarra eta Tolosako alkateak Ibarretxekin batera, Voitheko kudeatzailearen azalpenak aditzen. M. SOROA



Mauri Lazkano Sprilurreko lehendakaria inaugurazio ekitaldiaren amaieran hitz batzuk esaten. M. SOROA

Agintariak Voitheko tailerretik ateratzerakoan, Apattaren inaugurazioko bigarren ekitaldiari eman zitzaion pasu, zinta mozketari, hain zuzen ere. Ibarretxek zinta hainbat zatitan

moztu aurretik, ordea, agurra jaso zuten denek dantzari eta txistulariaren eskutik.

Inaugurazioetako ohiko zinta mozketaren ondoren Apattaerreka industriagunearen azpiko aldean kokaturik dagoen Opil enpresara joan ziren guztiak, bertan hitza hartu baitzuten agintariak Apattaren inaugurazio ekitaldiari amaiera emateko. Sprilurreko lehendakaria den Mauri Lazkano izan zen hitza hartu zuen lehena eta besteak beste, Sprilurrek 2006an 397 milioi euro inguru inbertitu dituela gogorarazi zuen. Era berean, datozen lau urteetan Erreterria, Elgoibar, Mutriku, Hernani, Pasaia, Tolosa, Azkoitia, Zarautz edota Donostian Sprilurrek esku hartuko duela adierazi zuen.

Apattaerreka industriagunearen inguruko ikus-entzuzkoak ikusi zuten ondoren, eta irudien eta datuen bitartez Apattaerrekarik buruzko informazio zabalago jasotzeko aukera izan zuten gerturatu ziren guztiak.

Luncharekin hasi aurretik Ibarra alkateak eta Ibarretxek hartu zuten hitza. Chelo Romeoek Sprilur eta Gipuzkoako Foru Aldundia eskertu nahi izan zituen, berak esan bezala, «zuen inbertsiorik gabe ez bultzateke posible izango indutrigune berri hau sortzea». EAEko lehendakariak, berriz, eskualdeko proiektuek duten garrantzia azpimarratzeaz gain, aurrera begira ikuspegi industrialari garatu behar dela azaldu zuen.

IBARRA ▶

## Peruko irudien diaporama gaur Gaztetxean

Ibarra Gaztetxearen XIII. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte gazteek egunotan. Bihar, ospakizunekin jarraituz, Alpmayo (Peru) *Directa Francesa* diaporama izango da ikusgai 20:00etan Gaztetxean. Gogoratu, diaporama Gaztetxeko mendizaleen eskutik eskainia izango dela.

IBARRA ▶

## Etorkin gazteen inguruko hitzaldia Kultur Etxean

Jatorrin, Tolosaldeko etorkinen aldeko elkarteak antolatuta Kulturarteko Jardunaldia hasi zen pasa den astelehenean. Gaur, ekitaldiekin jarraituz, Mercedes Jimenezek Al Jaima elkarteak antropologoak eta Mohamed Simouk Tangerangreko adin txikikoen harrera-etxeko giza hezitzaileak hitzaldia eskainiko dute 19:30ean Ibarra Kultur Etxean. Hitzaldian landuko den gaia, *lagundu gabeko adin txikiko etorkinak* izango da.

LIZARTZA ▶

## Alondegia aldeko hitzaldia gaur 20:00etan

Alondegia barrutik ezagutzeko eguneko herenegun izan zuten hasiera, oraindik, ordea, bada zer burutu. Gaurkoan, hitzaldia izango da 20:00etan Alondegia ganbararen. Bertan izango dira Ordizia, Oiangui eta Lizartzako ordezkariak bakoitzaren herriko arazoez hitz egiteko. Hortik dator hitzaldiaren gaia bera ere, *Hiru herri hiru arazo*, hain zuzen.

BERASTEGI ▶

## Podologoaren bisita izango da datorren astean

Gaztainondo jubilatutako elkarrekin podologoaren bisita izango du hilaren 23an. Bisita, 09:00etatik 12:45era izango da, eta interesatuek txanda hartu beharko dute alde aurretik 943 68 32 64 edo 943 68 32 02 telefono zenbakietan.

iragarki laburrak ▶

## LANA

**Iturgina.** Iturgin lanerako pertsona bat behar da.  
656 41 68 08.

## SALGAI

**Autoa.** BMW M3a. 286 zaldi.  
14.000 euro. 943 65 41 43.

## BESTEAK

**Txakurkumeak.** Txakurkumeak oparitzen dira. 618 25 49 71.

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Zer gai jorratuko zenituzte TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN? Zer irakurriko zenuke gustura? Zerbait aldatu edo gehituko zenuke? Dagoen bezala gustuko duzu? Sartu gure webguneko eztabaidan eta eman zure iritzia gai honen inguruan.

JONAN FERNANDEZ ▶ BAKETIK ZENTROKO ZUZENDARIA

# «Iragana aztertu behar dugu eta ondorio batera heldu: beste inoiz ez»

Barrura begira gogoeta egin du, gatazketan funtsezkoena norberaren barruan gertatzen delakoan; 'Ser humano en los conflictos' liburuan jaso ditu ondorioak

IMANOL MURUA (Berria)

Euskal gatazkarekin borrokan egin dituen hogeitun urteko eskarmentuaren emaitza da Jonan Fernandezek (Tolosa, 1962) argitaratu berri duen liburua: *Ser humano en los conflictos* (Alianza). Ez da gatazka politikoak konpontzeko metodologiaren garapena, gatazkei —politikoak nahiz bestelakoak— ikuspuntu etiko batetik begiratzeko proposamena baizik. Aurkezpenaren aurretik hitz egin zuen *Berria*-rekin Baketik zentroko zuzendariak.

**Garrantzi handia ematen diozu gatazka konpontzeko ahaleginetan elkarriketari aurre egiteko moduari. Garai baten aldean, entzuteko eta enpatiarako jarrera hobeak sumatzen dituzu?**

Gatazka batean nolako parte hartzea dugun jakiteko, oso garrantzitsua da nola komunikatzen garen aztertzea. Elkarriketa da ardatz nagusia eta, hori baino garrantzitsuagoa, nola entzuten dugun. Gatazka suntsizaille batean inkomunikazioa eta tentsioa dira ezaugarria nagusiak, eta gatazka erakitzaile batean, komunikazioa eta distentsioa. Une honetan, zailtasun askorekin baina pixkanaka komunikazioaren eta distentsioaren bidea jorratzen ari gara. Aldaketa horretan kokatu behar da egoera politikoaren aldaketa ere.

**Konponbidearen bila abiatzean, liburuan diotuzenez, aldeak hitzartzeko asmoa beharrean irabazteko asmoa izatea da oztopo nagusietako bat. Hori ere ari da gertatzen gurean?** Une honetan, bai. Irabazteko mentalitatea dago kasu askotan, eta ez bi aldeek irabazteko elkarlana izateko mentalitatea. Besteek irabazten badute guk galdu egingo dugula pentsatzen da askotan. Negoziazio moderno bateko mentalitate berriak eskatzen du alde bakoitzak pentsatzea nola irabaz dezakeen beste aldeak, negoziazio gunea indartsuagoa eta sendoagoa izateko.

**Helburua irabaztea ez dela barneratzea, norbere iragana auzitan jartzea izan daiteke, baina.**

Gatazka suntsizailleetan arazo handia da gure iragana justifi-



JOKEMI SAIZAR

katu beharra. Ondo ez zeuden gauza asko egin ditugu iraganean, eta gure iragana auzitan ikusten dugu etorkizunera begiratzerakoan. Oztopo bat da. Iraganeko akatsak onartu egin behar dira, pertsona moduan zein kolektibo moduan, eta hori ez da erraza. Hori ez bada gainditzen, ez da posible aurrera egitea.

**Dogmatismoaren eta manikelsmoaren arriskuak ere alpatzen dituzu zure lanean. Azken urteotan garai batean baino manikelsmo gutxiagoarekin jokatzeko da politikan?**

Hobeto dago kontua. Egon ziren garai oso manikeoak: «edo nirekin edo nire kontra» premisaren indarra sekulakoa zen. Orain pixka bat desegiten ari da, eta behar-beharrezkoa da horrela izatea. Horretarako, garrantzitsua da gatazketan hirugarren gune bat egotea, zeren eta bestela poloek bakarrik dute indarra, eta poloetan daudenek beharrezkoa dute «edo nirekin edo nire kontra» premisa.

**Hirugarren esparrua, liburuan diotuzenez, ez da ez ekidistantzia ezta neutraltasuna ere. Zer da?**

**Zein dira biktimak?**

Ez da erraza definitzen. Izena ematean ere ez gaude ados: terrorismoaren biktimak, indarkeriaren biktimak, gatazkaren biktimak, giza eskubideen biktimak... Tipologia asko daude. Irizpide hedakorra hartu behar da, ez murriztailea. Sufrimendu mota guztiak onartu behar dira.

**Sufrimendua onartu, eta kito? Zer gehiago egin behar da biktimen alorrean?**

Biktimizek badituzte eskubide batzuk. Okerrena da biktimizei itxaropen faltsuak sortzea, bereari ez dagozkien eskubideak aginduz, eskubide politiko bereziak aginduz. Eta hori egin da azken urteotan. Biktimizei hiru eskubide dagozkie: konpontze moral, konpontze materiala eta memoria kritikoa. Eta besteon betebeharra da memoria kritiko horren gainean etorkizuna eraikitzea. Zaila izango da, baina azterketa kritiko eta autokritikoa egin behar da, eta ondorio batekin bukatu: beste inoiz ez. Beste toki batzuetan egin da: Guatemalan, Argentinan, Hegoafrikan... Eta hemen ere egin behar da. Hori da biktimizekin daukagun zor nagusia. Ezin dugu etorkizuna eraiki iraganari begiratu gabe.

**Egiaren batzordea-edo behar da.**

Ez orain, baina adiskidetzeko prozesuaren une batean beharrezkoa izango da memoria kritikoa, eta memoria horretan sufrimendu guztiak aintzat hartzea: atentatuen biktimak, bahituak, torturatuak... mota guztietako biktimak.

**Gatazka desaktibatzea eta joko arau berriak hitzartzea ez dela nahikoa diozu liburuan, adiskidetzeko ere beharrezkoa dela. Baina ez litzateke gutxi, konponketa politikoa bere horretan lortuz gero.** Orain sinatuko genuke, bai. Orain aurreadiskidetzearen edo bake prozesuaren fasean gaude: alderdi politikoak, instituzioak eta abar adosten ari dira zein diren baldintzak adiskidetzeko politikoaren prozesua aurrera eramateko. Hori sendotzen bada etorriko da adiskidetzeko politikoaren fasea: hor, alderdi politikoek izango dute betebeharrak nagusia, normaliza-

zio politikorako. Hori lortzen baldin bada, zuk diotuz bezala ez da gutxi izango eta ospatuko dugu, baina nahi baldin badugu berriro ez gertatzea etorkizunean beste gatazka suntsizaille bat, beharrezkoa da adiskidetzeko prozesua lantzea.

**Zer da, ordea, adiskidetzeko?** Akats asko eginen dugu adiskidetzeko hitz egitean. Adibidez, adiskidetzeko berriro lagunak izatea dela pentsatu izan dugu. Hori ez da. Berriro errespetuan bizitzea da. Edo pentsatzen da biktimizek eta biktimizek arteko besarkada dela. Hori ere ez da. Gizartearen prozesu bat aurrera eramatea da.

**Hain zuzen ere, lehengoan Donostian elkarren ondoan ikusi genituen IRAko kide ohi baten eta haren biktima baten alaba. Biktimizek eta biktimizek arteko besarkada zen, nolabait.**

Zalantzan jartzen dut hori positiboa ote den.

**Zergatik?**

Oso ezohikoa da. Bi pertsona horiek hori egin nahi badute erabat errespetagarria da, erabat txalagarria, baina ez dut uste eredu bezala jarri behar denik. Hori ez da gertatuko %99etan. Artifiziosoa da. Irudikatzen baduzu adiskidetzeko dela denak besarkatzea, denak lagunak izatea, torturatu eta torturatzailea besarkatzea, hiltzailea eta hildakoaren familia besarkatzea, uste dut ez dugula ondo bideratuko prozesua, eta ardura guztia biktimizek jartzen dugula. Hori ez da posible. Biktimizek egin behar dute nahi dutena. Nahi badute erasotzailea ezagutu, ondo. Baina ez badute ezagutu nahi, ez da ezer gertatzen. Hori ez doa adiskidetzearen kontra. Adiskidetzearen arduraz gizaratean dago, ez biktimizek.

**Mezu ezkorrak entzuten ari gara azkenaldian bake prozesuaren garapenean. Zuk ere ezkor ikusten duzu?**

Ez. Baditut kezka batzuk baina ez naiz ezkorra. Hemen garrantzitsuena da gizaratearen jarrera oso sendoa dela, eta gizaratek ez lukeela onartuko inolaz ere berriro atzera egitea. Aldeek atzera begiratzen dutenean, ez dute inolaz ere atzera bueltatu nahi, bertigo sekulakoa ematen du atzera egitea posible dela pentsatzea dutsak. Gauza batzuk gaizki doaz: eraso judizialak, kale borroka, pistolen lapurreta... Seinale negatiboak dira. Baina badaude seinale positiboak ere: sakonean, alderdien arteko elkarriketak eta ETArek eta Gobernuaren arteko komunikazioa bide sendoak dira. Oinarria ematen diote prozesuari.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko abenduaren 14a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzera

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(balantzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

902 82 02 01

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Asteasu.** Udaletxeko zine aretoa, 20:00etan Andoni Areizagak mendiko eskiairene eboluzioari buruzko proiektzioa emango du, Asteasuko Mendi Astearen baitan.

**Ibarra.** Kulturarteko Jardunaldien baitan, *Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa* gaitzat hartuta hitzaldia izango da Mondragon Unibertsitateko irakaslea den Amalia Barquinen eskutik, ostiralean 19:00etan Kultur Etxean.

**Lizartza.** Alondegia herriarena eta herriarentzat jardunaldien baitan, Alondegian. 20:00etan. *Hiru herri hirurako arazo* gaia hizpide hartuta, Ordizia, Oiangu eta Oiartzungo ordezkariak izango dira hizlari. Oiartzungo arau ordezkariak inguruan mintzatuko da. Ordiziarra Oiangu publikoaren inguruan eta Lizartzakoa Alondegiari buruz.

**Tolosa.** Galtzaundi Euskara elkarteak antolatuta, literaturari buruzko hitzaldi bat izango da 19:30ean, Kultur Etxean, Pako Aristiren eskutik.

### ZINEMA

**Tolosa.** Zine-forum saioa: *La leyenda del tiempo* filma ikusgai, 21:30ean, Leidor antzokian

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Dama zuriaren helduera

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Asteburuan bota zituen lehen elur-marutak Aralarren; hala ere oraindik «oso gutxi» bota duela diote guardetxetik



Txindokiko tontorra elurtuta esnatu zen iragan asteburuan; argazkian, mendia Baliarraindik. N. URBIZU

### ERREDAKZIOA

**P**raka motzetik berokietara jo dugu, jertseak ukitu ere egin gabe; aire girotua utzi eta berogailua piztu dugu; ohean maindire bakarra izatetik etxeko manta potoloenarekin lo egitera. Entsalada freskoak utzi eta zopa gozoak hartzerantz... Udazkenik gabeko urtea izan omen da askorentzat gure bi eskualdetan. Baina azkenean heldu da askorentzat hain desiratutako negua.

Haatik, eskiatzaileek eta elur zaleek oraindik zertxobait gehiago itxaron beharko dute Aralarra igo eta bertan elurrrarekin gozatzeko. Guardetxeko langileak edierazitakoaren arabera, «asteburuan izan zen lehen elurtea, baina ez da nahikoa izan; oraindik oso elur gutxi dago». Asteburuan kotxe gehiago izan zirela ere informatu dute guardetxetik: «Elurrak erakarrira bisita gehiago izan ziren». Zeruari begira dira orain, «azken egunetako hotzekin elurra mara-mara eroriko dela» aurreikusten baitute.

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Joxepa (Ibarra). Nahiz 80 urte/gure ondoan bete/ nahi genduke zurekin biz/ beste hainbeste.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behe

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...